

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren Akta

2014ko 4. tailerra

Gaia: Eskola-Agenda 21 eta Legazpin iraunkortasun gaietan hezi

Eguna: 2014ko maiatzaren 22an.

Lekua: udaletxeke Batzar Aretoan.

Ordutegia: 18:30etik 20:00etara.



Urtero egiten ohi dugun legez, gaurko tailerreko protagonistak Eskola-Agenda 21ean lan egiten duten Legazpiko haur eta nerabeak izan dira.

Gainera, haien parte hartzeaz baliatuz, gure ikuspegia zabaldu dugu eta iraunkortasun gaietan heztea proposatu dugu. Horretarako, Afrikako esaera zahar hau ekarri dugu gogora:

“Herri oso bat behar da haur bat hezteko”

Horrela, gaurko tailerrean honako gaiak landu ditugu:



- Domingo Agirre eskolako 5. mailako irakaslearen eta haurren esperientzia: “Bizilagun berriak” ipuina.
- 2013-2014 ikasturtean Eskola-Agenda 21aren emaitzen eta konpromisoen azalpena.
- Udala, heziketa-eragilea udalerrian.

Eta Batzar Aretoa energiaz eta ilusioz bete zaigu. Iraunkortasun gaietan hezteko asmoarekin, esperientziak eta hausnarketak elkarrekin partekatzeko gogoia piztu da. Has gaitezen!

1. Zeintzuk elkartu dira? Protagonistak



32 pertsona izan dira gaurko tailerreko protagonistak. Zehazki honako hauek:

- **Legazpiko hiru ikastetxetatik: Domingo Agirre, Olazabal institutua eta Haztegi ikastola**

Saray Martinez – Izaro Calvo – Eneko Caspistegi – Damian Vela – Ane Vela – Inma Soraluze – Mari Romero – Iñaki Mauleon – Asier Indart – Mikele Zurutuza – Jone Mujika – Maite Odriozola – Oier Agirregabiria – M^a Mar Palacios - Joseba Agirre – Iñigo Aztiria – Koro Zabaleta.

- **Foroko ohiko partaideak:**

Manuel Fernandez – Juan Karlos Agirre – M^a Cruz Lizarazu – Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) – Feli Nuñez- Pilar Makibar – Xabier Baztarrika (Buskabaso) – Igor Rojo – Gurutze Laboa (Legazpiko Ingurugela) - Oscar Valbuena (zinegotzia) – Javier Iraeta (zinegotzia) – Igor Urrate (zinegotzia) - Kepa Urzelai (alkatea) – Isabel Sanz (Gazteria teknikaria) – Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) – Zorione Aierbe eta Iciar Montejo (dinamizazio-taldea).

Eskerrik asko guztioi!!!

Zuei esker, gaurko foroa berezia eta bizia izan da.

2. Zer? Tailerra, gaiz gai

Hasteko, Inmak hainbat gauza ekarri digu gogora...

... gaur, maiatzaren 22a, Biodibertsitatearen Munduko Eguna da. Egutegian berdez dago jasota eta horrek Lurrean bizi diren florako eta faunako espezie desberdinen aberastasuna ekartzen digu gogora.



“Bizilagun berriak”: esperientzia ahaztezina Domingo Agirre eskolako LH-5. mailako haurrentzat.

Legazpin iraunkortasunean hezteko helburuari jarraiki, gaur omenaldi txiki bat eskaini nahi izan diegu Domingo Agirre eskolako Lehen Hezkuntzako 5. mailako irakasleei eta haurrei. Zergatik? Ecoembes enpresak ontzien birziklatzea sustatzeko asmoarekin antolatu duen “Los profes cuentan” izeneko lehiaketa irabazi egin dutelako.



Mari Romero irakasleak adierazi digunez: “Eskolako zuzendariak lehiaketaren oinarrien berri eman zidan eta bi konturekin geratu nintzen: batetik, lehiaketaren helburua birziklatzea bultzatzea zela eta, bestetik, lehiaketa irabaziz gero Almudena Grandes idazlea ezagutzeko aukera izango genuela eta Almudena nire gogoko idazlea da. Beraz, lanean jarri ginen.”

Gelako haurrek honakoa kontatu digute: “Andereñoak idatzi zuen ipuina irakurri zigun eta asko gustatu zitzaigun. Gainera, eskulan batzuk egin genituen ipuinarekin batera Madrilera bidaltzeko”.

Guztira 180 ipuin aurkeztu ziren lehiaketara eta horietatik 10 aukeratu ziren. Hori jakin genuen oso pozik jarri zen taldea eta botazioa egin ondoren... irabazleak suertatu ziren.

Ederra izan da bizitako esperientzia eta emozioa, saria ere inportantea da:



- Ipuinarekin bideo animatu bat egin da Nerearen eta Naroaren abenturekin. Bideo hori sarean ikus daiteke helbide honetan:
<https://www.youtube.com/watch?v=ieKeV7qaVQs>
- Irakaslea eta gelako haurrak Madrilera joan dira saria jasotzera eta Almudena Grandes idazlea ezagutu dute.
- Gelak hiru eguneko txangoa egingo du Kantabriara.
- Eta azkenik, “Niños, medioambiente y otras historias con futuro” izenburuko liburua argitaratu da eta bertan jaso dira lehiaketako lehenengo 10 ipuin hoberenak. Liburua honako Web orrian ikus daiteke:
<https://www.amarilloverdeyazul.com/category/losprofescuantan/>

Dena den, Mari Romero irakasleak Legazpitik liburu-kopuru bat eskatzeko asmoa dagoela esan du. Bestalde, liburuaren prezioaren zati bat gobernuz kanpoko erakunde batentzako izango dela esan du.

Eskola-agenda 21: 2013-2014ko ikasturtearen proposamenak eta konpromisoak



Olazabal institutuko eta Haztegi ikastolako 4 ikasle izan dira hurrengo protagonistak eta aurten Eskola-agenda 21ean lan egin duten ikasle guztien bozeramaileak izan dira.

Bigarren urtez **biodibertsitatea eta hondakinak** gaia landu dutela ekarri dute gogora eta, ondoren, maila desberdinetan – lehen mailan, DBHn eta batxilergoan-egindakoa adierazi dute:

- Urtean zehar egin den lana azaldu dute.
- Hartutako konpromisoak adierazi dituzte, baita ohiturak hobetzekoak ere.
- Udalari egiten dizkioten proposamenak zehaztu dituzte.



Horrela, labur-labur, hona hemen egindako lanaren giltzarri nagusiak:

Maila	Aztertutako gaia	Ikasleen konpromisoak
LH-1 eta LH-2.	Hondakinak eta biodibertsitatea Legazpiko parkeetan	<ul style="list-style-type: none"> • Parkeak garbi mantenduko ditugu; ez dugu zaborra lurrera botako eta hondakin bakoitza dagokion ontzian utziko dugu.
LH-3 eta LH-4	Inguruko paisaiak	<ul style="list-style-type: none"> • Gure ingurunea zaindiko dugu; ez dugu zaborra lurrera botako, animaliak eta landareak errespetatuko ditugu eta herria garbi mantenduko dugu.
LH-5 eta LH-6	Inguruko berdeguneak	<ul style="list-style-type: none"> • Mendira goazenean ez dugu zaborra lurrera botako eta hondakin bakoitza dagokion ontzian utziko dugu.

Maila	Aztertutako gaia	Ikasleen konpromisoak
DBH-1 eta DBH-2	Gure herriko hegaztiak	<ul style="list-style-type: none"> Egurrezko habi batzuk egin ditugu eta Udalari horiek non jar daitezkeen proposatu diogu. Hondakin gutxiago sortuko dugu eta bakoitza dagokion ontzian utziko dugu, Sasietako zabortegira zabor gutxiago joan dadin eta kaiokin dagoen arazoa konpon dadin.
DBH-3 eta DBH-4	Materia organikoaren eta hondakin organikoen usteltzea	<ul style="list-style-type: none"> Errespetatu egingo ditugu ihartutako zuhaitzak (ez dugu bertako goroldioa kenduko, ez dizkiogu ostikoak emango,...)
Batxilergoa	Uretako ekosistema	<ul style="list-style-type: none"> Ez dugu ibaira zaborrik botako eta hori egiten duen norbait ikusten badugu, kargu hartuko diogu.

Legazpiko Udalari egindako proposamenei dagokienez, hona hemen:

Udalari egindako proposamenak:

- Jende asko pilatzen den lekuetan –gozoki-dendak, tabernak...-: hondakinak gaika biltzeko aukera ematen duten paperontzi gehiago jarri eta horiek egoera onean mantendu.
- Eskualde mailan, zauritutako animaliak zaintzeko zentro bat jarri, langile espezializatuekin (albaitariak...)
- Erreka Eguna antolatzeko lanetarako Gaztetxearen eta Udalaren arteko lankidetzaz sustatu, ekintza horretan gazteek ere parte har dezaten.

Gazteen aurkezpena entzun ondoren, Kepa Urzelai alkateak hartu du hitza eta joan den maiatzaren 20an egin zen eskolako Foroan aztertu eta adostu ziren hainbat konturen berri eman du. Hona hemen kontu horiek:

- Datorren ikasturterako Erreka Eguna ekainean egiteko aukera aztertuko da, ea modu horretan gazte gehiagoren parte hartzea lortzen den.
- Aurtengo udan berriz burutuko da Baietz txukun mantendu! izeneko kanpaina. Helburua: Legazpiko parkeak garbi mantentzea. Aste batean Latxartegi parkean jasoko den zaborra poltsa garden batean jasoko da gero jendeari lurrera botatako hondakin-kopurua erakusteko.
- Urtean zehar Eskola-agenda 21ek egin duen lanaren berri legazpiarrei emateko ikasleek hartu dituzten konpromisoak eta Udalari egin dizkioten proposamenak jasoko dituzten panelak jarriko dira. Eskola-agenda 21ean egiten den lana erakutsi nahi da.


Azaldu diren gai guztiak gustura entzun dira eta ondoren elkarrizketa sortu da Foroan. Bertan honako kontuak aztertu dira:



- Oro har, eta naturaren zikloak errespetatu egin behar direla jakinik, mendian **zauritutako animalia**ren bat aurkituz gero taldeak ez dakiela zer egin behar den aitortzen du. Ondo egongo litzateke kasu horretan zer egin behar den adieraztea eta zabaltzea: telefono-zenbaki batera deitu behar da animalia jasotzera etorri, Donostiako zentzora eraman eta haren egoera baloratu dezaten.
- Oso zaila da Erreka Egunaren antolaketarako **Gaztetxearen inplikazioa** lortzea. Urteren batean ahaleginak egin dira baina ez da arrakastarik lortu. Eskola-agenda 21ean lan egin duten gazteek zubi-lana egin dezakete.
- **Zer gertatzen da parkeetako garbitasunarekin?** Urtero lantzen dugun gaia da eta lortzen dugun arrakasta eskasa da: parkeak zikin daude. Irakasle batek gai hori eskoletan (eta etxeetan) oso barneratuta dagoen gaia dela esan du baina hori ez da kalera iritsi. Ez litzateke horrela izan behar baina hori da gertatzen dena.
- **Mendiko edukiontzietan uzten diren hondakinei dagokienez**, taldeak kontu horrekin zorrotzago jokatu beharko genukeela eta sortzen dugun zaborra jaso eta etxera ekartzeko ohitura izan beharko genukeela uste du. Hori da bidea mendia garbiago mantentzeko.
- **Udalak dituen ontzi berrerabilgarriei dagokienez**, ondo egongo litzateke ekintzaren bat antolatzen den bakoitzean ondorengo gai desberdinez arduratuko den pertsona edo taldea egotea: ontziak eskatu, eraman, ekarri,... Horrela errazagoa izango litzateke dena eta ontziak modu egokian erabiliko direla bermatuko litzateke.

Taldeari entzun ondoren, Inma Agenda 21eko teknikariak **Eskola-agenda 21etik datozen proposamenak** Udalarentzako oso inportanteak direla adierazi du.

Esan eta egin! Aurkeztu digunaren arabera, aurten horretan egin da lan eta landare inbaditzaileen gainean eta haiek errotik kentzeari buruz hainbat sentsibilizazio-kanpaina egin dira.





Hausnarketa horien ondoren gai garrantzitsu bati heldu diogu: **zer egiten ari da Eskola-agenda 21 ikasleak sentsibilizatzeko eta hezteko?** Zertan laguntzen du?

lehenak:

Aurten parte hartu duten neska-mutilak dira erantzun duten

- **Aurtengo gaia –biodibertsitatea- gustukoa dugu;** atsegin ditugu egin ditugun ekintzak ere. Guztiok –txikiak eta handiak- ikastetxeetatik kanpo ibili gara Legazpiko leku desberdinak ezagutzen.
- Gai honi dagokionez, **kalitateko informazioa erabili** ahal izan dugu. Udalak eginda du ingurune naturalaren azterketa eta hori oso baliagarria izan zaigu gure ondarea behar bezala aztertzeko.
- Gainera...
 - Eskola-agenda 21ek **eragina du etxeetan eta familietan.** Aukera dago gai bakoitza etxean lantzeko eta galdera honi erantzuteko: zer egin dezaket nik etxean?. Etxeko ohiturei buruz hausnartzera eramaten zaitu”
 - Herri mailan, neska-mutilen **parte hartzea** Agenda 21eko Foroan oso garrantzitsua da. Egun batez, haiek dira protagonistak (hala ere, interesgarria izango litzateke urtean gehiagoetan elkartzeko aukera izatea).

Udala hezkuntza eragile gisa



Aurreko elkarrizketak bidea eman digu eguneko azkeneko aztergaiari ekiteko. Gai hori honako galdera da: **¿Legazpik sentiberatasun berezia du ingurumen arloko gaiekiko?** Berezi sentikorra da gure herria?

Eta galdera hori egiten dugu gaurko tailerrean ikusi dugunez badagoelako “zer eta non landatu”. Asko dira hori pentsatzera eramaten gaituzten keinuak. Adibidez? Domingo Agirre eskolako LH-5. mailako ikasleek lortu duten saria, Agenda 21eko Foroaren 10 urteko ibilbidea, Eskola-agenda 21ean egiten den lan etengabea, merkataritzan dauden ekimenak (“Denda berdeak”)...

Hala ere, badirudi **taldeak ez duela oso argi kontua**. Haren hitzetan: “Beti dago zer hobetu. Agian mendian ibiltzekoak garelako eta mendia gertu sentitzen dugulako, berezi zaindu eta errespetatzen dugu baina asko dago egiteko...”

“Herritarren lehentasunen artean ez dago ingurumena, gehiago kezkatzen gaituzte bestelako gaiek: hirigintza, zementua,.... Beraz, badugu zer egin.”

Debatean inork ez du zalantzan jartzen **Udalak lan garrantzitsua egiten duela** iraunkortasunaren aldeko sentsibilizazio arloan. Inmak erakutsi digunez, urtero Udalak ahalegin handia egiten du sentiberatze-kanpainak eta ekintzak antolatzen. Horrela, Legazpin, Autonomia Erkidegoan baino ingurumen-hezkuntzako ekintza gehiago egiten dira.



Eta gainera, Udala osagai berezi bat gehitzen saiatzen da: sormena. Izan ere beti ari da gauza berriak asmatzen legazpiarrak ustekabean harrapatzeko eta haien arreta jasotzeko.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



3. Bukatzera goaz...

Eta hasi dugun bezala bukatuko dugu, mezuarekin:

“Herri oso bat behar da haur bat hezteko”

Tailerra amaitzeko, gogora ekarri nahi dugu guztion lana eta parte hartzea ezinbestekoa dela iraunkortasuna lortzeko sentsibilizazio-lanetan. Azken finean, handia da erronka; hauxe da bilatzen duguna: **“pentsatu, sentitu eta gauzak beste modu batera egin –herri gisa eta pertsonak bezala-”**.

Eskerrik asko guztioi! Beti bezala, plazer bat izan da!